

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4845

EBAZPENA, 2018ko irailaren 27koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra aldatuko duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra aldatzen duen dekretu-proiektua prestatu du Segurtasun Sailak, eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da proiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezkoiei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluekin bat etorritik; eta euren izaera dela eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Horren ondorioz, aurreproiektua jendaurrean jarriko da, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin bat etorritik, eta hogeit hamar egun balioduneko epea egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Azaldutako guztiarengatik, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikuluekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra aldatuko duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea hogeit hamar egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, proiekturen edukia Segurtasun Sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), bai eta euskadi.eus-en ere, alegia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 27a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.